

Mondragon Unibertsitateak eta LKSek gobernantzari buruzko unibertsitate-titulu bat sortu dute, politikariei eta gobernarietara erakunde eta entitate publikoak zuzentzen laguntzeko.

2013/01/08

Gobernatzea ez da erraza, eta are zailagoa da krisi-garai honetan; izan ere, egun, behar-beharrezkoa da tokiko edo lurraldeko erakundeak ondo kudeatzea, udalerrien eta lurraldeen etorkizunerako. Hori dela eta, oso garrantzitsua da erakunde publikoak eta haien entitate instrumentalak arrakastaz gobernatzeko beharrezko gaitasunak lantzea. Mondragon Unibertsitateak, LKSren eskutik, Gobernanzako Unibertsitate Aditua titulua jarriko du martxan. Hain zuzen, titularen izena “Gobernua eta Zuzendaritza Exekutiboa Tokiko eta Lurraldeko Erakundeetan” da, eta haren helburua da kargu politikodunen eta zuzendari publikoen zuzendaritza- eta kudeaketa-gaitasunak sendotzea, zerbitzu publikoak ematean hobekuntza eta berrikuntza susta ditzaten.

Edozein gobernu-mailatan funtzio politikoak edo zuzendaritza publikoko funtzioak egiten hasten diren pertsonak konpromiso handia izaten dute. Hala ere, ez dute beti prestakuntza egokia –norberaren jardura profesionalari lotutakoa izan ezik–, beren gain hartzen dituzten erantzukizunak berme- eta arrakasta-minimo batekin garatzeko. Horrenbestez, ezinbestekoa da politikarien eta zuzendari publikoen gaitasunak indartzea, zerbitzu publikoetan hobekuntzaren eta berrikuntzaren alde egitea, eta herritarrek erakundeetan konfiantza handiagoa izan dezaten lortzea.

Beraz, gure gobernarietara eta gure erakunde publikoetan zuzendaritza exekutiboko postuetan aritzen direnek erakunde-gaitasunak eta gaitasun pertsonalak landu behar dituzte; horri esker, erakundeen lehiakortasuna hobetu egingo da, eta tokiko erakundeak hazkunde ekonomikoko eta finantza-irakortasuneko tresna izango dira, eta herritarren bizitza-baldintzak hobetzen lagunduko dute.

Prestakuntza hauentzat da: tokiko erakundeetako, lurralde-administrazioetako, erakunde publiko instrumentaletako eta alderdi politikoetako langileentzat; kargu politikodunentzat; eta sektore publikoko zuzendari, goi-funtzionario eta arloko arduradunentzat.

Rafael Jiménez izango da tituluko koordinatzaile akademikoa; esperientzia eta izen handia du administrazio publikoaren eta tokiko gobernuaren arloetan. Zuzenbidean doktorea da EHU-n, Demokrazia eta Tokiko Gobernua Fundazioako zuzendaria, Zuzenbide Konstituzionaleko irakaslea Pompeu Fabra unibertsitatean, eta Sector Público SL aholkularitza-estudioko bazkide zuzendaria. Gainera, enplegu publikoari eta zuzendaritza publikoari buruzko hainbat liburu idatzi ditu.

Egitura akademikoa

Gobernu-maila horietan, kudeaketa politikoa zein zuzendaritza-kudeaketa egiteko, lidergo- eta zuzendaritza-funtzioak izateko ezagutza, gaitasun eta jarrerak behar dira. Askotan, erakunde-egitura horiek udalerrietako erakunderik handienak dira, langile-kopuruari eta aurrekontuei dagokienez. Gainera, erakunde horien jarduerak zuzentzeko eragina du egunero herritarren ongizatean.

Ikastaroak blended formatua izango du; alegia, zuzeneko prestakuntza (90 ordu) eta on line prestakuntza (120 ordu) uztartuko ditu. Zuzeneko prestakuntza hiru astean behin emango da: ostiraletan, 15:00etatik 20:00etara, eta larunbatetan, 9:00etatik 14:00etara. Ikastaroa urtarrilaren 25ean hasi eta ekainaren 15ean amaituko da. Gainera, ikastaro-amaierako lan aplikatua egin beharko da, 100 ordukoa. Lan horretan, ikastaroan zehar landutako alderdi bat edo gehiago



inplementatzeko eta/edo martxan jartzeko plan bat egin beharko da.
Irailaren 20an entregatu beharko da.

Ikastaroak 10 modulu izango ditu. Besteak beste, honako hauek landuko dira: tokiko gobernu bat arrakastaz gobernatzeko eta zuzentzeko oinarritzko erakunde-gaitasunak; herritarren parte-hartzea; aurrekontuak; tokiko erakundeen ekonomia- eta finantza-kudeaketa, eraginkortasunera begira; eta berrikuntza eta IKTak. Moduluak osatzeko, gaitasun pertsonalei eta erlazio-gaitasunei buruzko tailer bana ere egingo dira. Gainera, programak banakako laguntza-prozesu bat hartzen du barne. Prozesu horretan, coach profesional batek bere potentzial osoa garatzen lagunduko dio parte-hartzaile bakoitzari, eta lidergoaren eraginkortasuna hobetzeko ekintzak iradokiko ditu.

Irakasleak Mondragon Unibertsitateko eta LKS-ko profesionalak eta irakasleak izango dira: tokiko eta lurraldeko erakundeak kudeatzen eskarmentu handia duten profesionalak, eta aholkularitzan eta tokiko eta lurraldeko erakundeen zuzendaritzan eta kudeaketan esperientzia duten irakasleak.

Interesa dutenak Mondragon Unibertsitateak Oñatin duen Enpresagintza Fakultatearekin jar daitezke harremanetan, 943 71 80 09 telefono-zenbakiaren bidez edo migarzabal@mondragon.edu e-postaren bidez.